

Informazio-orria

Emakida bat azkentzeko eskabidea

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen uren erabilera pribatiborako eskubidea azkentzeko, eta, bestetik, adieraztea zer datu edo agiri aurkeztu behar duen horretarako.

1 Baimena nork eskatu behar duen

Azaleko eta lurpeko uren, iturburuaren, euri-uren edo leheneratutakoen erabilera pribatiborako eskubidea azkendu nahi duen edozein pertsonak edo erakundek.

2 Nola eta non eskatzen den

Eskabide-eredu bat dago, eta han jasotzen da zer datu bete behar den eta zer agiri aurkeztu behar den espedienteaz izapidetzeko. Eskabidea modu telematikoan bete daiteke, URAREN webgunean, edo izapidea aurrez aurre egin daiteke, eskabidea beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuta, hemen:

- **Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:**

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurren 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).**

3 Jabari Publiko Hidraulikoa eta Zaintza Eremua

Uren Legearen testu bateginak (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2001/BOE-A-2001-14276-consolidado.pdf>) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (<https://boe.es/buscar/pdf/1986/BOE-A-1986-10638-consolidado.pdf>), zehazten dute zein diren jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak: ibilguak, urtegiak, etab.

- Honako hauek osatzen dute **Jabari Publiko Hidraulikoa (JPH)**:
 - Ur kontinentalak, bai azalekoak bai lurpeko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
 - Korrante naturalen ibilguak, izan jarraituak edo etenak.
 - Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako azaleko urtegien hondoak.
 - Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
 - Itsasoko ura gatzgabetzetik datozen urak.

Uren Legearen testu bateginak (ULTB) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (JPHE) ezartzen duten bezala, lege-xedapen edo administrazio-xedapen bidez eskuratzen da jabari publiko hidraulikoaren erabilera pribatiborako eskubidea, erabilera kontsuntibo izan edo ez.

4 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ahal dela, dokumentazioa euskarri digitalean eta .pdf formatuan aurkeztuko da, elektronikoki sinatuta.

1. Kasu guztietan aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra:

- ☐ Eskabide-eredua, behar bezala beteta.
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua. Baimen-eskabidearen sinatzailea interesduna ez bada (ez dago aurkeztu beharrik, ordea, baldin eta ordezkaria alta emanda badago Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroan <https://www.euskadi.eus/registro-electronico-de-apoderamientos/web01-sede/es/>):
 - Ordezkaritza bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkari, edo, bestela, fede-emaila publikoaren aurrean sinatutako ordezkari-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
 - Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratzeke eskritura aurkezte, bai eta ordezkariak eskabidea sinatzea ere.
- ☐ Egindako edo egin beharreko obren edo jarduketaren deskribapen-memoria.
 - Jabari publiko hidraulikoko zortasunak egoera naturalera itzultzeko egindako edo egin beharreko jarduketaren deskribapena.
 - Putzuak zigitatu behar dira, egiteko hauek kontuaz hartuz ⁽¹⁾:
 - Elementu guztiak desmuntatu eta kentzea.
 - Hoditeria edo estaldura osorik edo partez ateratzea.
 - Ur-hargunea zigitatzaileekin edo agregakinekin betetzea.
 - Putzua zigitatu aurretik, proiektu bat aurkeztu behar da, honako hauek jasoko dituenak:
 - Ur-hargunearen kokapen geografikoa eta administratiboa.
 - Ur-hargunearen ezaugarri hidrogeologikoak.
 - Putzuaren eraikuntza-ezaugarriak.
 - Putzua zigitatzeko aurreikusitako metodologia, azpiegiturak nola kenduko diren eta putzurako zer betegarri proposatzen den adierazita, betiere bat etorrita putzuaren ezaugarri hidrogeologikoekin.
 - Behin putzua zigitatu ondoren, zigitatu osteko memoria aurkeztu beharko da, material grafikoarekin batera. Memorian, honako hauek jasoko dira, gutxienez:
 - Putzuaren zigitatze-data.
 - Egindako eragiketen eta, hala badagokio, gertatutako gorabeheren deskribapena.
 - Lanak egitean erabilitako ekipo materialak, produktuak eta tresnak.
 - Azpiegiturak kentzeko eta betelanak egiteko eragiketetan baliatutako metodologiaren xehetasunak.
 - Gainazaleko akaberaren xehetasunak.
 - Ur-hargunearen eta bere ingurunearen argazkiak, zigitatu aurretik, bitartean eta ondoren.

Putzuak zigitatuz gero zer dokumentazio bidali behar den jakiteko, gomendatzen dugu honako gida honen 3. puntua irakurtzea: Zundaketak, putzuak eta galeriak egiteko eta zigitatzeko proiektu baten gutxieneko eduki teknikoari buruzko gida.

5 Izapidetzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, izapide hauek egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea.
2. Informazio publikoa ematea EHAAren eta Uraren Euskal Agentziaren Interneteko atarian.
3. Nahitaezko diren edo interesgarritzat jotzen diren txostenak eskatzea organismoari, unitateari, erakundeari edo entitateari.
4. Alegazioren bat aurkeztu bada, pertsona edo erakunde interesdunari ikustaldia emango zaio, hilabeteko epean adieraz dezan bere interesak defendatzeko egokitzat jotzen duena.
5. Lekuan bertan alderaketa egingo da, beharrezkotzat jotzen bada.
6. Txosten teknikoa.

7. Ebazpena ematea.

6 Ebazpenaren ondoreak

Ebazpenak amaiera emango dio lege-xedapen baten bidez lehendik eskuratutako emakidarako edo erabilera pribatiborako eskubideari.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

7 Ebazteko epea

Uraren Euskal Agentziak gehienez ere hemezortzi hilabete izango ditu aprobetxamendu hidrauliko baten azkentzea eskatzeko prozedura ebazteko.